

Neurosia da patologiarik ohikoena Euskadiko osasun mentaleko zerbitzuetara jotzen duten gazteen artean

Neskak eta gazterik nagusienak (25 eta 29 urte bitartekoak) dira batez ere osasun mentaleko zerbitzuetara gehien joan direnak



2005ean Euskadiko osasun mentaleko zerbitzuek 15 eta 29 urte bitarteko 12.248 gazteri eman zieten arreta, 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen % 3ri, alegia. Arreta jaso duten biztanle gazteen artean, % 48,1 mutilak dira, eta % 51,9, neskak.

Datuak adin-taldean arabera aztertuz gero, 25 eta 29 urte bitarteko gazteak dira osasun mentaleko zerbitzuetara gehien joan direnak (% 46,3). Jarraian 20 eta 24 urte bitartekoak daude (% 28,2) eta, azkenik, 15 eta 19 urte bitartekoak (% 25,5).

EAEko osasun mentaleko zerbitzuetan arreta jaso duen 15 eta 29 urte bitarteko biztanleria, adin-taldean eta sexuaren arabera. 2005						
	Guztira		Gizonak		Emakumeak	
15-29	12.248	100	5.896	48,1	6.352	51,9
15-19	3.123	25,5	1.545	49,5	1.578	50,5
20-24	3.453	28,2	1.595	46,2	1.858	53,8
25-29	5.672	46,3	2.756	48,6	2.916	51,4

Iturria: Osasun Saila eta bertan egina.

Gazteek osasun mentaleko zerbitzuetara nagusiki neurosiaren zioz (% 36,7) jotzen dute. Datuek aditzera ematen dutenez, neurosia ohikoena da hiru adin-taldeetan. Gaixotasun horren intzidentziari dagokionez, badago alderik sexuen artean: kasu gehiago dauden nesken artean mutilen artean baino.

EAEko osasun mentaleko zerbitzuetan arreta jaso duen 15 eta 29 urte bitarteko biztanleria, trastorno motaren eta sexuaren arabera. 2005						
	Guztira		Gizonak		Emakumeak	
Guztira	12.248	100	5.896	48,1	6.352	51,9
Patologia organikoa	27	0,2	14	0,2	13	0,2
Patologia afektiboa	302	2,5	121	2,1	181	2,8
Beste psikosi batzuk	1.057	8,6	750	12,7	307	4,8
Alkoholismoa	112	0,9	92	1,6	20	0,3
Toxikomaniak	1.225	10,0	1.005	17,0	220	3,5
Neurosia	4.498	36,7	1.525	25,9	2.973	46,8
Nortasunaren trastornoak	584	4,8	334	5,7	250	3,9
Beste diagnostiko batzuk	1.710	14,0	899	15,2	811	12,8
Ez da jasota geratu	2.733	22,3	1.156	19,6	1.577	24,8

Iturria: Osasun Saila eta bertan egina.

EAEko osasun mentaleko zerbitzuetan arreta jaso duen 15 eta 29 urte bitarteko biztanleria, trastorno motaren, adin-taldearen eta sexuaren arabera. 2005

	15-19			20-24			25-29		
	Guztira	Giz.	Emak.	Guztira	Giz.	Emak.	Guztira	Giz.	Emak.
Guztira	3.123	1.545	1.578	3.453	1.595	1.858	5.672	2.756	2.916
Patologia organikoa	0	0	0	11	8	3	16	6	10
Patologia afektiboa	27	12	15	99	44	55	176	65	111
Beste psikosi batzuk	138	103	35	307	217	90	612	430	182
Alkoholismoa	7	6	1	32	25	7	73	61	12
Toxikomaniak	109	86	23	389	322	67	727	597	130
Neurosia	977	352	625	1.283	383	900	2.238	790	1.448
Nortasunaren trastornoak	224	134	90	133	67	66	227	133	94
Beste diagnostiko batzuk	784	456	328	422	207	215	504	236	268
Ez da jasota geratu	857	396	461	777	322	455	1.099	438	661


Iturria: Osasun Saila eta bertan egina

Giz. (Gizonak), Emak. (Emakumeak)

Arabara, 1.831 gazte jo dute osasun mentaleko zerbitzuetara (2005ean Arabara errolatuta zeuden 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 3k); Bizkaian, 7.329ak jo dute zerbitzu horietara (2005ean Bizkaian errolatuta zeuden 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 3K); eta 3.088k Gipuzkoan (2005ean Gipuzkoan errolatuta zeuden 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 2K).

Patologia nagusia hiru lurraldeetako bakoitzean neurosia izan da, Euskadi osoan bezala.

EAEko osasun mentaleko zerbitzuetan arreta jaso duen 15 eta 29 urte bitarteko biztanleria, lurralde historikoen arabera. 2005



Iturria: Osasun Saila eta bertan egina

Erlazionaturiko datu taulak:

[1. taula. \(pdf, 31 kb\)](#)

Erlazionaturiko estekak:

[Gazteen Euskal Behatokiaren estatistikak](#)

